



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-01-26

VIIIURTEA 1912. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

'Egunkaria'-ren sorreran ETAk zerikusirik ez zuela izan «frogatu da»

'EGUNKARIA AUZIA' Epaketaren laugarren saioa atzo izan zen; bertan defentsaren hiru lekukok deklaratu zuten

MARTXELO OTAMENDI «Kazetaren sorrera nola eta zein helbururekin izan zen argi azaldu du Iñaki Zabaletak» 2



Remi Ayestaranek bere ibilbidea dauka Villabonan. HITZA

«Zuretzat, Remi, eta zure gomutarekin bizi garen guztiontzat»

VILLABONA Remi Ayestaranen omenez ibilbide bati bere izena jarri diote Udalak eta herritarrek 6



Leitzako gazteak puske bila ibili ziren atzo, egun guztian zehar, herriko baserri-bordetan barrena. A. IMAZ

ATSAUREEK AGUR ESANGO DIOTE IHOTEEI

LEITZA Hoteen azken egunean eskean ibiliko dira Erasote auzoan; arratsaldean Atsaureen kalejira ikusteko aukera egonen da 7

AINTZANE EZENARRO
ARALAR-EKO KIDEA

«Bakea oinarritzat hartu behar da edozein elkarlanerako»

ASTEASU Hitzaldi «irekia eta parte-hartzailea» emango du gaur legebiltzarkideak 4

Su-Berrikoak
garaile
Euskadiko eta
Gipuzkoako
txapelketetan

PILOTA Itsaso Urkizu, Nagore Arozena, Ainhoa Garmendia eta Maitane Aburuza izan dira txapeladunak 3

JESUSEN BIHOTZAK
ERROKIZUNA ERREPEN HERRITARRAREN ZERBITZURA
HH-LH-D&H
KALITATEZKO HEZKUNTZA ELEANITZA,
EUSKARA ARDATZ DELA
JANGELA ETA GOIZ-TXOKOA ZERBITZUAK
Villabona: Berrito 55, Tfnoa: 943692321; Txorierri z/g Tfnoa: 943692058; Oñati: Paganola z/g Tfnoa: 943691275
ibilbidea@hitza.net www.garaiak.com

Muruak esan du berak «iradoki» zuela Otamendiren izena zuzendari izateko

'Egunkaria auzia' » Atzo izan zen epaiketaren laugarren saioa; defentsaren hiru lekukok deklaratu zuten.

ERREDAKZIOA

AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioen arabera, ETAK esanda jarri zuten Martxelo Otamendi tolosarra 1993an *Egunkaria*-ko zuzendari, baina aste hori hankaz gora botatu zuen atzo Imanol Murua Uria euskarazko kazetako langile ohi eta defentsaren lekukoak. Izan ere, Murua Uriak epaileari jakinarazi zion berak «iradoki» zuela Otamendiren izena *Egunkaria*-ko zuzendari izateko.

Atzo ekin zioten Madrilen, Espainiako Auzitegi Nazionalen *Egunkaria auzia*-ren laugarren saioari. Akusazioen lekukoak Txomin Aizpuru ETAKo kide ohi eta preso izandakoa, eta defentsaren hiru, Imanol Murua Uria euskarazko kazetako langile ohi eta *Egunkaria* Sortzeneko kidea, Iñaki Zabaleta idazlea eta EHUKo irakaslea eta Jose Luis Zinkunegi jesuiten burua izan ziren auzitegiaren, azalpenak ematen. Hirurek ere *Egunkaria*-ren independentzia eta pluraltasuna defenditu dute, eta sorrera garaian ETArekin ez zuela harremanik izan berretsiz zuten.

«ETAK ez du eraginik izan Egunkariaren erabakietan»

Imanol Murua Uriak aitortu zuen berari proposatu ziotela *Egunkaria*-ko arduradunak zuzendari jaretzea 1993an —1990ean ere eskaini zioten, beste hainbati bezala—, baina ezkeza eman zuela, bere burua ez zuelako zuzendari izateko «prestatuta» ikusten, eta «aukeraketan lagundu» nahian Martxelo Otamendiren izena jarri zuela mahai gainean. Joan Mari Torrealdai administrazio kontseiluko kideari



Iñaki Zabaleta idazlea eta EHUKo irakaslea, eskuinean, Auzitegi Nazionalerako bidean, atzo. HITZA

hori «iradoki» ziola azaldu zuen. 1993ko ekainean izendatu zuten Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendari, eta postu horretan egon zen 2003ko otsailaren 20ra arte, Guaradia Zibilak, Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalerako epailearen aginduz, euskarazko kazeta itxi zuen arte.

AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioen ustetan ETAK esanda jarri zuten Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendari, baina Murua Uriaren adierazpenek hankaz gora botatzen dute hori. Horrez gain, ETAK *Egunkaria*-ren erabakietan sekula ez duela eraginik izan ziurtatu zuen *Egunkaria*-ren langile ohiak.

«'Egunkaria'-ren eta EAJren hoztasuna PSEk apurtu zuen»

Iñaki Zabaleta defentsaren bigarren lekukoak euskarazko kazeta sortzeko prozesuaz azalpen ugari eman zituen. Leitzarrak azpimarratu zuenez, «Egunkaria Sortzeneko kidea zen euskal kulturaren izan dezakegun talderik pluralena». Kazetaren eta EAJren arteko harremana bidera zezan Mario

Onaindia PSE-EEko buruzagi zena erekin harremanetan jarri zirela azaldu zuen. «EAJren eta *Egunkaria*-ren arteko hasierako hoztasuna apurtu zuena PSE izan zen», gehitu zuen, eta ETAK edo KASEk *Egunkaria*-ren erabakiren batetan eraginik izan zuen galderari, zorrortz erantzun zion Zabaletak: «Ez dute sekula eraginik izan, ezin izan dute parte hartu, eta gainera ez genduke sekula onartuko».

Bestalde, Jose Luis Zinkunegi jesuiten buruak azaldu zuen Txema Auzmendi auzipetua bere kargupean aritu zela *Egunkaria*-n administrazio kontseiluko idazkari izan zen Auzmendi—. Kazetaren proiektuan aritzeko oniritzia eman ziola erantsi zuen, «euskarazko egunkari bakarra izango zela eta proiektu zabalak zelako».

«'Egunkaria'-ren sorreran ETAK ez zuen parte hartu»

Txomin Aizpuruak herri akusazioen lekuko gisa deklaratu zuen. ETAKo buruzagitzako kide izan zen Aizpuru, eta bera buruzagitzara horretako kide zela ustez erakunde armatuak *Egunkaria*-ri bu-

ruz egindako txosten baten inguruan galdetu zioten. Areago, berari atzeman zioten txostena akusazioen arabera. Aizpuruak horrelako txostenik ez duela inoiz ikusi esan zuen txostena erakutsi ziotenean. *Egunkaria*-ren proiektuaren berri «gizartean pil-pilean» zegoen gaia zelako zuela erantsi zuen preso ohiak, eta aurreko saioan Jose Luis Alvarez Santacristina Txelis, Jose Mari Dorronsoro eta Carmen Gisasola presoek ere berretsiz zuten bezala ETAK ez zuela kazetaren sorreran parte hartu adierazi zuen. Epaileak eta fiskalak ez zioten Txomin Aizpuruari galderarik egin.

«'Egunkaria' euskaltzaleek sortua izan zela frogatu da»

Martxelo Otamendik atzoko saioaren amaieran azaldu zuenaren arabera, «indar handia» izan zuten atzoko deklarazioek, «batez ere, Imanol Murua Uriarenak eta Iñaki Zabaletarenak». Otamendik esan bezala, «Murua Uriak egindako adierazpenekin argi geratzen da ETAK ez zuela zerikusirik izan ni zuzendari izendatzearekin,

izan ere, Muruak berak iradoki zuen nire izena, eta berari tolosar lagun batek proposatu zion».

Bestalde, tolosarraren ustez, Zabaletaren hitzek ere «garrantzi handia» dute, «*Egunkaria*-ren sorrera nola izan zen argi azaltzen baitu, baita zein helburu zuen ere».

Otamendi: «ni zuzendari izendatzearekin ETAK ez zuela zerikusirik izan argi geratu da»

Horregatik, atzoko jardunaldiarekin guk beti akusazioaren aurrean defendatu izan duguna frogatzen da, hau da, *Egunkaria* euskaltzaleek sortu zutela, eta ETAK ez zuela inolako parte-hartzerik izan».

Joan Mari Torrealdai: «Egia gailenduko da»

«Fabulazioen gainetik egia gailenduko da». Hala esan zuen atzo Joan Mari Torrealdai *Egunkaria*-ko auzipetuek Madrilen hedabideen aurrean, Auzitegi Nazionalaren atarian, saioaren aurretik. Halaber, bost auzipetuek «lasai» daudela adierazi zuten.

Torrealdai, Otamendi, Iñaki Uria, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga auzipetuek epaiketa amaierara iristen ari den arren «er» jarraitzeko eskatuta diote gizarteari, Auzitegi Nazionaletik edozein epai espero daitekeela iriztita. Larunbatean gizarteari ordezkaritza zabalaren babesa jaso zuten auzipetuek Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa).

Bihar izango du jarraipena auziak

10:45ean hasi zen atzoko saioa eta 13:20 zirenean eten zuen Javier Gomez Bermudez epaimahaiburuak Antonio Parrero AVTko abokatuaren ama hil zelako. Berez, gaur izan behar zuen jarraipena epaiketak, baina Parreroren ordeko abokatuak gaur ezin zuela eta, bihar jarraituko dute. Defentsaren lekukoek txanda izango da bosgarren saioan, eta horiek amaitezen bezala, «Murua Uriak egindako akusazioak eta defentsak otsailaren amaieran helaraztea euren eskaerak epaimahaiairi.

@ Ikus-entzunezkoak. Tolosaldeko eta Leitzaldeko ekitaldi ugari bideoak eta argazkiak ikusteko aukera dago gure webgunean. Bideoak edota irudietan ataletan sartu besterik ez duzu egin behar. **Audioak** atala ere bisita dezakezu:

www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Urrezko katea.** Amezketako Zazpi-Ilturri inguruan urrezko katea aurkitu da. J.Z. inzialekin. Deitu 678 47 66 12 telefonora.

Tolosako apeaderoan lapurreta egin izanagatik, bi lagun atxilotuta

ERREDAKZIOA

Tolosako apeaderoan lapurreta egin zuten ostiral gauean. Bertako arduradunak, gizonetako batek eta emakumezko batek indarkeriaz burutu zutela ekintza azaldu zion Ertzaintzari. Larunbatean agenteek ustezko lapurrak atxilotu zituzten Martutenen.



Tolosaldea ere Fitur azokan izan da

TURISMOA ● Arnaitu berri da Madril Fitur turismoaren azoka, eta bertan izan da baita ere Tolosaldea. Hain zuzen ere, hilaren 20tik 24ra nabaritu da eskualdearen presentzia Euskadiren stand-eant. Berdea markarpean, barnealdeko beste eskualdeekin batera banatu dute informazioa eta irudia. Tolosaldeko Turismo eta Azoketako zinegotzia, Nerea Letamendia, ere bertan izan zen egun horietan. HITZA

Kirol emaitzak

PILOTA	SENIORREN OHOREZKO MAILA	
Binakako Txapelketa Nagusia	Joseba Senperena	10-22
LEHEN MAILA	Euskadiko txapelketa	
Oinatz Bengoetxea-	KADETEAK	
Otxandorena	Galarraga-Otaegi	22-7
Titin-Pascual	Ceberio-Balardi	22-12
BIGARREN MAILA	JUBENILAK	
Olazabal-Arruti	Gorostidi-Balardi	6-22
Diaz-Apraiz	Egiguren-Galarraga	22-2
	Labaka-Mugika	20-22
Euskal Herriko Liga	SENIORRAK	
22 URTEZ AZPIKOAK	Quina-Mugika	22-20
Jon Jaunarena	Barandiaran-Mattin	22-1
Sarraoa		
KADETEAK	Emakumea Pilotari	
Amurrio	2. MAILAKO GIPUZKOAKO	
Onsalo-Aldaregia	TXAPELKETA	
Lasa	Garmendia-Aburuza	30
Xabier Jaunarena	Hernani	14
	NAGUSI MAILAKO EUSKADIKO	
Malerrekako txapelketa,	TXAPELKETA	
BENJAMINAK	Urkizu-Arozena	30
Goikoetxea-Txoperena	Etxegia-Montes	18
Mitxeo-Telletxea		
ALEBINAK	FUTBOLA	
Lezea-Alduntzin	Erregional Ohorezko Maila	
Mugiro-Ezkiroz	Tolosa CF - Hernani	2-1
KADETEAK	SAILKAPENA	
Barberena-Aldaregia	1. Pasaia (40p.); 2. Zarautz (38p.);	
Mugika-Iruretagoiena	3. Aurrera de Ondarroa (38p.);	
	5. Tolosa CF (32p.)	
Nafar Jokoak	1. Erregionala Igoera Fasea	
BENJAMINAK	Amaroz - Bergara B.	1-1
Oier Goikoetxea-Mikel Zabaleta	SAILKAPENA	
Aldabide	1. Allerru B (6p.); 2. Vasconia (6p.);	
M. Sukuntza-J. Eskudero	3. Bergara B (4p.); 8. Amaro (1p.)	
Sutegi		
H. Txoperena-K. Hernandez	Mondragon B - Intxurre	1-0
Aldabide B	SAILKAPENA	
ALEBINAK	1. Irun (7p.); 2. Mondragon B (6p.);	
B. Billabona-J. Sukuntza	6. Intxurre (3p.)	
Irurtzun		
A. Alduntzin-J. Illarregi	ARETO FUTBOLA	
Oberena E	Nazional A Maila	
J. Lezea-B. Aitzelai	Lauburu KE - Zierbana	2-3
Oberena B	SAILKAPENA	
INFANTILAK	1. Zierbana (41p.); 2. Zalatambor	
J. Goikoetxea-M. Eraso	(34p.); 4. Lauburu KE (33p.)	
Erreka C		
KADETEAK	Nazional B Maila	
Xabi Eraso-Ibai Gil	C.D. Aldaz - Trsp. Lakunza	4-3
Beti Onak	Laskorain Ikastola - La Bellota	3-7
I. Mitxas-I. Barberena	SAILKAPENA	
Aranpilota A	1. Laskorain Ikastola (36p.); 2. Iturri- riondo Zurbaranbarri (32p.); 3. Concepto-Creattech (31p.); 11. Transportes Lakunza (18p.)	
Berria Txapelketa	SOKATIRA	
KADETEAK	Euskal Herriko Txapelketa	
A. Olano-X. Jaunarena	EMAKUMEZKOAK, 540 KILO,	
Juaristi-Txurruka	1- Badaiotz (9 puntu); 2. Sakana	
JUBENILAK	(4 puntu); 3. Beti Gazte (4 puntu);	
M. Onsalo-J. Aldaregia	4. Ibarra (0 puntu).	
Mendizabal-Galarraga		
NAGUSIAK	SASKIBALOIA	
Etcheverri-Mikel Iriarte	Lehen Maila	
Errasti-Aranalde	San Ignacio UPNA	90
	Take Bidebide Ibizia	91
Euskadiko txapelketa	SAILKAPENA	
KADETEAK	1. Bidegintza Cespa (11-3);	
Eneko Labaka	2. Padura (9-5); 3. Seky.es (8-6);	
I. Maiza-J. Elustondo	9. Take Bidebide Ibizia (4-10).	
Juaristi-Txurruka		
JUBENILAK	TXIRRINDULARITZA	
Ibai Arratibel	Neguko challenge	
X. Urbieta-T. Zinkunegi	2. Ane Iriarte (Billabona)	
	3. Dorleta Eskamendi	
22 URTEZ AZPIKOAK		
Aitor Biain		
SENIORRAK		
Jon Ander Albisu		
22-10		
E. Narbarte-L. A. Zubiri		
22-13		
O. Epelde-K. Galarraga		
17-22		
O. Apezetxea-X. Telletxea		
15-22		

Tolosa - Ibarra A bide onetik

Xakea » Gipuzkoako Taldekako Ligako beste jardunaldi bat jokatu da eta multzoko lehen postuan dira eskualdekoak.

oraingoan Donostiako Gros I taldearen aurka. Txanda guztiak irabazita multzoko lehen postuan da eta datorren astean iguera fasera-ko txartela eskura dezake dagoneko.

Tolosa-Ibarra B-k, aldiz, galdu egin zuen Billabonaren aurka. Joko aldetik, ordea, hobekuntza nabarmena erakutsi zuten bertako jokalariek eta azken txandetan emaitza hobek eskuratzeko itxaropenarekin amaitu zuten. Taldea multzoko azken postuetan den

arren kontuan izan behar da oso pareketa zailak izan dituela orain arte. Izan ere, multzoko lehen hiru sailkatuen aurka jokatu behar izan du jarraian eta hori oso gogorra suertatu da talde hasi berriarentzat.

Bestalde, datorren igandean, goizeko 11:00etan, Eskolarteke Txapelketak hasiko dira. Eskualde osoko neska-mutilak Tolosako Kultur Etxean bilduko dira eskolatan ikasitako praktikan jartzeko asmoz.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan Gipuzkoako Taldekako Ligako beste jardunaldi bat jokatu da. Honetan ere Tolosa-Ibarra A-k bere bide onari eutsi dio eta beste garaipen bat lortu du,

Su-Berriko neskak garaile Gipuzkoakoan nahiz Euskadikoan



Itsaso Urkizu eta Nagore Arozenak asteburu honetan irabazi dute nagusi mailako Euskadiko Txapelketa. HITZA

Pilota » Asteburuan bi final jokatu eta irabazi dituzte eskualdekoek; orain arteko txapelketa guztiak irabazi dituzte nagusien mailan.

gor saiatu beharko duen. Aburuzaren kasuan berriz, iaz jubemiletan finalera iristerik lortu ez zuen arren, aurtengoan nagusietan, 2. mailan, oso ondo moldatu da eta maila honetan nahiko errez moldatzen dela erakutsi du. Laster lehen mailako partidak jokatzera pasatzeko moduan izango da.

Euskadikoan ere eskualdekoak garaile

Itsaso Urkizu eta Nagore Arozenak ere partida ona egin zuten eta Intxaurrondo elkarteko Mirari Etxegia eta Ainhoa Montes pilotariak mendean hartu zituzten. 30 eta 18ko emaitzarekin norgehiagoka bereganatzea lortu zuten. Berastegikoak tanto politik egiteko

aukera izan zuen, nahiz eta gehiegi arriskatzeari falta batzuk ere egin zituen. Lizartzarra berriz, betiko moduan pilotak eraman eta eraman aritu zen eta Urkizuri pilota onak uzteko benetan lan ona egin zuen.

Honenbestez, Su-berri elkarteko pilotari guztiak osopozik agertu dira, izan ere, oraingoan zuzen maila nagusian, Gipuzkoan zein Euskadin, jokaturiko txapelketa guztiak beraiek irabazi baitituzte. Nabaria denez, elkartean dabil-tzan pilotariak lan ona egiten ari dira. Hala ere, elkarteko zuzendaritzak pilota gustuko duten Tolosaldeko neskei deialdia egiten die, nahi izanez gero proba egitera el-kartera joan daitezten eskatuz.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan Su-Berriko neskek bi final izan dituzte jokoan, eta bietan emaitza ezin hobek lortu dituzte. Aldebatetik, nagusietan, 2. mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu da, eta bestetik nagusi mailako Euskadiko Txapelketa.

Anoetan larunbat arratsaldean Ainhoa Garmendia eta Maitane Aburuzak mendean hartu zituzten hernaniarrak 30 eta 14ko emaitzaren. Partida hasieratik kontrolpean izan zituzten aurkariak eta uste baino errazago menderatu zituzten. Garmendiak tanto asko sartu zizkion Hernaniko aurrelariari eta Aburuzak oso ondo zaindu zuen Ainhoaren bizkarra une oro, kantxako espazio libre guztiak tapatuz. Garmendiarentzat lehenengo txapela izan da hau eta oso pozik agertu zen. Txapelketetan ari dela bi denboraldi besterik pasa ez direnean hasi da partida onak egin eta txapelketak irabazten. Etorkizun polita izan dezake nesken pilota munduan, nahiz eta oraindik entrenamenduetan go-

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E **Elkarrizketa****AINTZANE EZENARRO** Aralar alderdiko legebiltzarkidea

IMANOL GARCIA

Aintzane Ezenarro (Getaria, Gipuzkoa, 1971) hitzaldia emango du gaur Asteasu, 19:30ean, udaletxe-ko ikusentzunezkoen aretoan. *Ezker abertzale politikoaren erronka* du izenburua hitzaldiak. «Politikaz eta Legebiltzarreko gorabeheraz elkarrizketa ireki eta parte-hartzaile bat izatera» gonbidatzen ditu herritarak. Ezenarro azaldu duenez, «eztabaidatzea asko gustatzen zait eta horretarako ere berdin pentsatzen dutenak tartean behar dira».

Zergatik antolatua duzue hitzaldi bat Asteasu?

Irailaren amaieran egin genuen gure laugarren kongresua eta bertan ponentzia politiko bat onartu zen. Gipuzkoako zuzendaritzak mezua herrietara eramatea ondo ikusi zuen. Eskualdeko arduradun ezberdinek proposatu dizkigute hainbat hitzaldi eta horien artean dago Asteasu ere. Gure ildo politikoaren aurkezpena egin eta gaur politikan eta erakundeetan eginen ari garena eta etorkizunera begira zer asmo ditugun azalduko ditugu.

Garrantzia dute horrelako hitzaldiak?

Zuzeneko harremana izateko modu bat da eta uste dut jendea eman behar zaiola aukera esateko duena zuzenean entzuteko. Gure ikuspegi azaltzeaz aparte, hitzaldi hauetangehien gustatzen zaidana jendearen ekarpenak, xehetasunak eta galderak ezagutzea da. Horrek errealitatearen neurria ematen du. Askok gustatzen zait entzutea eta beti nago belarriak irekita. Eta uste dut ordezkaritza politiko bat beti egon behar dela errealitateari lotuta.

Nola ikusten duzue egungo egoera politiko?

Hego Euskal Herrira begiratu, bi ezaugarri daude. Alde batetik, lehenengo aldiz abertzale guztiak erakunde publikoetatik kanpo gaudela. 2007an Nafarroan sartzeko zorian izan ginen eta hemen ere gutxiatik PSE-EEk eta PPK eserleku gehiago dituzte eta beraz gobernu dute. Estrategia hori diputazioetara eraman nahi dute. Hor nola kokatzen gara abertzaleok eta bereziki ezkerreko abertzaleok? Beste ezaugarria ETaren indarkeriaren iraunkortasuna da.



KARLOS CORBELLA

«Gobernu alternatiba izatea da ezker abertzale politikoaren erronka»

Asko hitz egin dezakegu balizko egoera batean gertatu daitekeenaz. Baina gaur gaurko egoera da abertzaleon elkarlana bideratzeko oraindik ere indarkeria zama bat dela herri honetan, eta horren aurrean kokatu behar gara.

Eta nola kokatzen zarete hor?

Ez dugu inoren zain egon behar. ETak erabakia hartzen badu, askoz hobe, horrela izango balitz, egoera erabat aldatuko litzateke. Euskal Herrian azkenaldian egon den berririk onena izango zen. Baina hori gertatu arte politika egin egin behar da eta ezkerretik eta abertzaleasunetik egin nahi dugu. Beraz ez gaude itxaroteko prest

eta Gobernu honi oposizioa egin nahi diogu. Badagotentazio bat eta uste dut ikuspegi espainolista batetik elikatua dela gainera: abertzaleok politika erreala ez den zer-baitetan entretentzea, balizko egoera batez hitz egitea. Eta bitartean beraiek eguneroko kudeaketa egin dute nahi bezala. Etorkizuneko perspektiba desberdinak hor daude eta elkarlanerako prestutasuna gure aldetik beti izan da, baldintza batzuk ematen badira, baina bitartean politika egin behar da. **Abertzaleen elkarlanerako zein baldintza beharko liriateke?** Aralar helburu nagusi batekin sortu zen: bakea. Herri honek bakea

merezi du. Bakea zor zaio herriari, ez Espainiako Estatuari. Herri honek belaunaldiak daramatza sufritzen eta bakean bizitzea zor zaio. Horren alde lanean dihardugu, eta gainera erakutsiz posible dela bakea eta aldi berean ezkerreko abertzaleasuna defendatzea. Bakea oinarritzat hartu behar da edozein elkarlanerako. Jada ez du balio su-eten batek. ETak sinesgarritasuna galdu zuen inor abisatu gabe bomba jarri zuenean T-4ean. Behar dena da behin betiko erabakia, alde bakarreko, ezeren trukean izan gabe. Bitartean ezin dugu egon abertzaleok ETak hartzen duen erabakiaren zain. Politika

egin behar dugu, herri honek merezi duelako.

Eko idazkari nagusiak azaldu duenez, zabalik daude ezker abertzalearen koalizioa egiteko hauteskunde begira. Nola ikusten duzue hori?

Lehen esaten nuen bezala, ez ote ari garagaltzen errealitatean ez dagoen zer-baitetan? Aralarren betiko helburua izan da ezker abertzale politiko indartsu bat egitea, bere aniztasuna kontuan hartuta. Aralarrek etorkizunean indarkeriarik ez badago ezkerreko eta abertzaleak diren indarrak biltzen ahalegina egingo du? Bai. Gaur da hori errealitatea? Ez. Gaur politika egin nahi dugu? Bai. Niri harrigarria eginen zait ETak armak uztearen kontu hori baldintza txiki bat balitz bezala aipatzea. Batasuneko ordezkariak hitz egin beharko dute Batasunaz. Egin dezatela bere gogoeta, hartu dezatela bere denbora. Eta beraiek, protagonistak diren heinean, erabakitakoa gizarteratu dezatela.

Zer deritzozu Lopezen Gobernuari buruz?

Zortzi hilabetez Gobernu programa beharrezkoa dela ukatzen egon ondoren kontratu soziala aurkeztu zien Gobernu kideei eta aldi berean PSE-EEko kideei. Inkestetan emaitza onak ez dituela ikusi ondoren egin zuen aurkezpen hori. Programa ez du aurkeztu berez aurkeztu behar den lekuan, hau da, Legebiltzarrean, eta hori ikaragarria da. Aralarrek eta EAJk behartu dugu Legebiltzarrean etortzea eta azalpenak ematera eta horretaz gain gure iritzia entzun beharko du. Lehendakari honi ez zaio gustatzen eztabaidatzea. Eta legebiltzarra horretarako dago, eztabaidatzeko.

'Ezker abertzale politikoaren erronka' da hitzaldiaren izenburua. Zein da erronka hori?

Epe ertainera gobernu alternatiba bihurtzea da erronka. Ezkerrek ezin du herri honetan beti oposizio bokazioa izan. Oposizioaz gain izan behar du balentria eta erronka gobernatzeko, kudeatzeko eta egunerokoan aritzeko. Ez dadila bakarrik izan «nik posizio politiko honekin bat eginen dut eta honi bozkutzen diot», bidez eguneroko gauzetan boto horrek eragin kortasun izan dezala.



saridunak

Ibarrako Uzturpe ikastolaren X. kultur astearen barruan

IRRIEN LAGUNAK
Pirritx eta Porrotx-en ikuskizunaBihar • 18:00ean
Ibarrako Belabieta kiroldegian (berogailu sistemarekin)**Karmen Iraeta Arsuaga (Tolosa)**
Inaxio Agirre (Tolosa)

sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin

800 bat umek hartu dute parte Ero Etxek urtero antolatzen duen krosean

Tolosa » Herenegun eguraldi petrala izan bazen ere jende ugari gerturatu zen elkartean 23. lasterketa ikustera.



Eguraldi nahiko petrala izan bazen ere, jende asko gerturatu zen krosa ikustera. J. J. MUJICA

ERREDAKZIOA

«Giro ederra» sortu zen herenegun Tolosan Ero Etxe elkarteak antolatu ohi duen krosean.

Eguraldia ez zen aproposena izan, baina hala eta guztiz ere «klasikoa» den Ero Etxe Kroseko 23. edizioan 800 bat umek hartu zuten parte.

Neska gehiago

«Oso pozik gaude, batez ere nesken parte hartzearekin, normalean neskek adin jakin batetik aurrera ez dute parte hartzen horrelakoetan, baina aurten neska pila bat ateratu da, poztekoa da», argitu du Isitxo Larrañaga antolatzaileak. Guztira sei lasterketa egin zituzten haurrek Tolosako Alde Zaharra «festa giroan» murgilduz.

Larrañagak, era berean, krosa antolatzeko lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie: «Ero Etxe elkarteak ez direnak erelaguntzen aritu dira eta eskerrak eman behar dizkiegu guztiei».

» SAILKAPENA

Mutil benjaminak

- **1. postua.** Ibai Salaberria (Laskorain Ikastola).
- **2. postua.** Iñaki Beitia (Samaniego ikastetxea).
- **3. postua.** Eneko Artola (Samaniego ikastetxea).

Neska benjaminak

- **1. postua.** Izaro Perurena (Hirukide ikastetxea).
- **2. postua.** Miren Alargunso (Hirukide ikastetxea).
- **3. postua.** Intza Egizabal (Laskorain Ikastola).

Mutil alebinak

- **1. postua.** Unai Iribar (Laskorain Ikastola).
- **2. postua.** Ander Zuriarrain (Doctor Fleming ikastetxea).
- **3. postua.** Luis Mari Garikano (Hirukide ikastetxea).

Neska alebinak

- **1. postua.** Eider Calahorra (Laskorain Ikastola).
- **2. postua.** Ainhoa Garikano (Laskorain Ikastola).
- **3. postua.** Saioa Zubillaga (Anoretako Ikastola).

Mutil infantilak

- **1. postua.** Iñigo Garmendia (Orixe Institutua).
- **2. postua.** Joseba Olaetxea (Laskorain Ikastola).
- **3. postua.** Gorka Sorarain (Orixe Institutua).

Neska infantilak

- **1. postua.** Jone Gomez (Laskorain Ikastola).
- **2. postua.** Leire Alargunso (Hirukide ikastetxea).
- **3. postua.** Idoia Ezeiza (Laskorain Ikastola).

Tolosaldeko sukaldeko olio biltzeta «primeran» doala diote

ERREDAKZIOA

Tolosaldean jadanik jarrita daude bere 28 udalerrietan sukaldeko olio gaika biltzeko 61 edukiontzi. Une honetan Mankomunitateko biztanleak sukaldeko olio horretarako jarritako edukiontzian botatzen ari dira biodiesel bihurtu ahal izateko, eta era horretan lagundu egiten dute hondakin horren kudeaketa iraunkorra izan dadin. Ecogras, edukiontzietatik olio jasotzen ari den enpresaren arabera, lehen urratsak «bikainak» izan dira.

Herritarrek hartutako jokabide ohituren baitan dago gaikako biltzen arrakasta eta horregatik, Tolosaldeko Mankomunitateak saritu egin nahi izan ditu beren sukaldeko olio gaika jasotzen ari direnak, «pentsatuz, estimulu horrek lagunduko diela esperientziarekin hasten, eta horrenbestez, jada utzi ezin den ohitura hartzen». Edukiontzian bota beharreko plastikozko botilan edo brikontzian telefono zenbakia idazten duten erabiltzaileek zozketa batean parte hartuko dute eta Araba, Bizkaia edo Gipuzkoako landa etxe batean bi lagunentzako aste-burua irabazi ahal izango dute.



harpidedun izateak badu saria

① Afaria

Tolosako ISASTEGI sagardotegian 2 pertsonentzako afaria



Aldaba txiki, 15 A
943 652 964
TOLOSA

② Antzerkirako sarrerak

XABINEITOR antzezlanerako 2 sarrera pare

Otsailak 5 ostirala
20:30ean • Tolosako Leidor-en



③ Diskoa

Elkar etxeak eskeinia Xabier San Sebastian-en "Ospela" azken diskoaren 4 ale



④ Liburua

Elkar etxeak eskeinia Rai Bueno era Iratz Inziartek egindako "Fatima" haur liburuaren 4 ale



Remi Ayestaran izena edukiko du bera hiltzen ikusi zuen ibilbideak

Villabona » Plaka agertze ekitaldian, udal ordezkariak, senideak, lagunek eta gertukoak hartu zuten parte.

ERREDAKZIOA

Igandean, Remi Ayestaran ibilbidearen plaka agertze ekitaldia izan zen Villabonan. Ekitaldi xume honetan, Remi Ayestaran alkateordearen udal kideak, familia, lagunak eta gertukoak elkartu ziren.

Villabonako Udalak deituta, abuztuaren 2an, udaletxean Remiren heriotza salatzeo egin zen plenoan herritar talde batek egindako eskariari erantzunez, Udalak, Urzabal ibilbideari Remi Ayestaran ibilbidea izena jartzea erabaki zuen. Etzi, Udal ordezkariak, Maixel Arrieta buru zutela, herritarrek eta Burgosetik etorritako ordezkariak bat elkartu ziren ibilbidean. Denek egon nahi izan zuten ekitaldian.

Bi dantzarik ohorezko aurrerakua dantzatu zuten eta jarraian, Maialen Abaigar zinegotziak hitza



Remi Ayestaran ibilbideari izena emango dion plakari ikurrina kendu zioten unea da. HITZA

hartu zuen eta denei eskerrak eman ostean, zeharo hunkituta testua irakurri zuen.

Une horretan, Julito Iturbe Udaleko zinegotzi kideak, plakari, estalki gisa zuen ikurrina kendu zion. Bertaratutako guztiak txalo zaparrada batekin erantzun zuten.

Remiri irakurritako testua

Maialen Abaigar, Villabonako Udaleko Euskara eta Hezkuntza zinegotziak irakurri zuen testua: «Fatalitatearen kalea deitu behar, genioke agian. Minaren kalea, edo behar bada amorraren kalea. Baina ez: Remi Ayestaran ibilbidea

deituko diogu, gaurtik, istant honetatik aurrera.

Villabonako historiaren pasarterik ilunenetakoa islatuko du ibilbide honek, Ertzaintzaren bortizkeria neurrigabeak estreinatuta baitzuen kale hau. Herri honetako gazte ezkertiar, abertzale eta kon-

prometitu baten heriotza ikusi zuen kale honek, eta guk gaur harren izena jartzen diogu bere omenez. Herriarena dena herriari itzuli behar zaiolako eta Remik herriaren alde egindako guztiarengatik zorretan gaudelako.

Gaurko eta biharko billabonatarrek jakin dezaten nor zen Remi, nor den Remi eta nor izango den Remi, idatzita utzi behar da Historia. Baguk, gaur, hemen, hauxe uzten dugu idatzita: Remi Ayestaran ibilbidea.

Tori zuretzat ibilbide hau; eta jakizu zuretzat bezain bat izango dela zure gomutarekin bizi garen guztiarentzat. Badakigu entzuten dituzula gure hitzak, eta zin egiten dizugu zure taupadek jarraipena izango dutela, ez dira ezerezean geldituko. Zure lanerako grina ez du haizeak eramango, zuk herriari emandakoa ez da hauts bihurtuko. Mutil handi batentzat beti izango dira kaleak Euskal Herrian. Muxu bat, Remi. Herriak ez zaitu inoiz ahaztuko!».

Ekitaldia amaitzen eta behin ibilbideari izena emanda, Ezker Abertzaleko ordezkariak zabal batek lore eskaintza egin zuen, zehazki, Remi Ayestaran gaztea ertzaintzak jazarri eta hilik suertatu zen tokian. Orain, eta hemendik aurrera ere, bere izena izango duen ibilbidearekin, billabonatar gaztea beti gogoratua izango da.



Euskal presoek babesa adierazten

VILLABONA » Euskal presoak jasaten ari diren egoera dela eta, 2010. urtea borrokaldirian hasi dute. Hori dela eta, ostiraletik larunbatera itxialdia egin zuten Gurea

antzokian eta larunbatean zenbait herritarrek *Dagozkiek eskubideen jabe, Euskal Presoak Etxera* lemapean elkarretaratzea egin zuten. HITZA

Laburrak

Kaldereroak eta 2010eko kultur ekintzak aztergai

IRURA » Festa batzordeko partaide guztiekin hilaren 27an, asteazkenean, egingo den bilerarako dei egiten dute Udaletik. 19:00etan udaletxeko Batzarraldi Aretoan elkartuko dira eta bertan bi puntu izango dituzte aztertzeko: alde batetik, kaldereroak 2010; otsailaren 5ean Iruran eta bestetik, urteko kultur-ekitaldien egitaraua zehaztea. Festa batzordea irekia denez «ezagutuko bazenu bertan parte hartzeko eta kultur ekintzak prestatzen laguntzeko gogo berezirik duen norbait (elkarte bateko kide ez izan arren), gonbidatu ezazu bilera honetara». Horrekin batera, «guztien ekarpena» onartzen dutela aipatu zuten.

EHEek deituta 19:30ean elkarretaratzea Mintzolan

VILLABONA » Euskal Herrian Euskaraz erakundeak Nazio Mailako Mobilizazio Eguna deitu du gaurko. Egunkaria auzia salatzeo eta euskarazko hedabideak erabili eta defendatzeko aldarrikapena zabalduko dute. *Euskarari erasorik ez! Euskaraz bizitzeko Egunkaria libre!* lelopean Euskal Herriko hainbat herri eta auzoetan aldarrikapenari hauspoa eta oihartzuna emango dioten ekimenak egingo dira. Eskualdean, Villabonan elkarretaratzea burutuko dute 19:30ean Mintzola erakinaren aurrean. Zentzu berean, besteak beste, Gasteiz eta Iruñeko Gobernu ordezkariaren aurrean egingo dituzte elkarretaratze nagusiak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



Gazteek egun guztia baserri-bordetan igaro zuten eskean, giro benetan ederrean. Haurrek berriz, arratsaldean, puzgarrietan jolasteko aukera eduki zuten. ASIER IMAZ

Gaur amaituko dira Leitzako Ihoteak

Gizartea » Erasote auzoan eskean ibiliko dira goizean; arratsaldean, usadioa indartu nahian, atsareak herriko kaleetara irtengo dira.

ASIER IMAZ

Askorentzat Ihoteetako egunik ederrena izan zen atzokoa. 09:00etan, herriko plazan, ehundik gora lagun bildu ziren puske bila joateko gogoz. Hiru taldetan banatu ondoren, Gorritzaran, Sakulu, Erreka eta Arkixkil auzoeta-

ra abiatu ziren eskelariak. Ibilbideko baserrietan jana eta edana zain zuten. Atsauretuek berriz, umore ona eta jairako gogoia eraman zuten. Egunaren amaieran elkartu ziren hiru taldeak, herriko plazara elkarrekin itzultzeko. Hortik aurrera, batzuzk etxera eta besteak...

Atsaureen kalejira

Atsaureen ohitura indartzeko asmoz, Ihoteen aurretik, Leitzako Iñauterizale taldeak tailerrak eta batzarrak antolatu zituen. Lanketa horren emaitzak gaur ikusiko dira kalean, 18:30etik aurrera, orduan irtengo baitira atsareak kalejirara.

Ihotei agur esateko berriz, Ate-kabeltz gaztetxean kontzertua antolatu dute; The Sparteens talde lapurtarrak Twist doinuz loratuko ditu betiko euskal kantauak.

» EGITARAUA

Gaur, Astearte ihote

- **09:00etan.** Erasote auzoko borda-baserrietan barna eskean ibiliko dira.
- **11:30ean.** Umeentzako Xurdi- nek saioa eskainiko du eskolatako jangelan.
- **14:30ean.** Aurreran elkartean bazkaria.
- **17:00etan.** Umeen kalejira txar- rangarekin, ondoren txokolata- jatea.

- **18:30ean.** Leitzeko atsareak eta txistulariak, herrian barrena kalejiran.... Berreskura ditzagun le- hengo jantziak eta pestak!
- **19:00etan.** Gaubela taldea kar- rapen.
- **23:30ean.** Atsedenaaldiaren on- doren, Gaubela taldea karrapen.
- **Ondoren.** Inkansables txaranga
- **24:00etan.** The Sparteens tal- dearen kontzertua Ate-kabeltz gaztetxean.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizalde: 687 410 118. leizalde@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile
S.L.ko kideak:
'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegietia, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil
Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



A Agenda

Deialdia

■ **Villabona.** Jesusen Bihotza ikas-tolaren Kultur Astearren baita gaur 17:15ean ikasleen emanaldia izango da Gurea antzokian.

Hitza

■ **Ibarra.** *Ikusmeanaren garrantzia ikasketan* hitzaldia emango du Teresa de Olabarria optimetristak gaztelerez gaur Kultur Etxean 18:00etan, Uzturpe ikastolaren Kultur Astearren baitan.

» GUARDIAKOFARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
 ■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Ur eta lur.
09:00. Alex eta Alexis.
09:30. Tolosaldean Gaur.
10:00. Klik.
10:30. Ilunpean.
11:00. Erlo klip.
11:30. Tolosaldean Gaur.
12:00. Kirolak.
12:30. Zahar berri.
13:00. Muka muka.
13:30. Tolosaldean Gaur.
14:00. Klik.
14:30. Ilunpean.
15:00. Erlo klip.
15:30. Tolosaldean Gaur.
16:00. Kirolak.
16:30. Zahar berri.
17:00. Muka-Muka.
17:30. Tolosaldean Gaur.
18:00. Kafe t'ardi.
18:30. On ein!
19:00. Planik bai.
20:00. Kultur zulo.
 (*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritziaren erantzukizunik.



Aizkardirekin, ibilaldiz ibilaldi

VILLABONA ● Igandean, Aizkardi Mendi Elkarte mendizaleek, Zugastieta, Oiz eta Bolibar gurutzatu zituzten. Eguraldiak ez zien asko lagundu eta paisaiaz ezin izan zuten gozatu. Hala ere, 25 mendizale elkartu ziren eta bete beharreko ibilbidea egin zuten. Igande honetan ere, hilak 31, mendi irteera egingo dute eta kasu honetan, Villabonatik abiatu eta, Andatza eta Zubietatik igaroko dira. Ibilaldi honetan parte hartzeko izena ez da inon eman behar eta nahikoa da egunean bertan mendira joateko gogoia izan eta 08:30ean Olaederri kiroldegira azaltzea. HITZA

A Agurrak



Zorionak Joseba eta Yelena

Josebak gaur 5 urte eta Yelenak 2 hilabete. Zorionak etxeko guztien partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
 jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
 Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
 Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>